



# GARRANTZITSUA

## URAREN ZIKLO INTEGRALEKO ETA HONDAKINEN TRATAMENDUKO INSTALAZIOETARA ESKATU AHALAKO AUTOBUSEZ SARTZEN DIREN BISITARIENTZAKO OINARRIZKO SEGURTASUN-ARAUAK

Ongietorria egin nahi dizugu gure instalazioetara eta eskerrak eman gure lana ezagutzeko interesarengatik. Gure xedea da zure egonaldia probetxuzkoa izatea, eta, batez ere, erabat segurua. Hori dela-eta, arau hauek arretaz irakurtzeko eskatu behar dizugu, eta bai, **bisitaren arduradun moduan, autobus-gidariak eta bisitan parte hartuko dutenek arau horiek ezagutu eta errespetatzearen ardura hartzeko ere.**

### Irten aurretik

**Kontuan izan bisita industria-instalazio bat izan daitekeela.** Funtsezkoa da orri honetan dauden oharrei eta bisita egin bitartean jarduera gidatuko duten langileek adierazten dituztenei jarraitzea.

### Instalaziora iritsitakoan

#### 1 Autobus-gidariarentzako oharrak:

“P” seinalea duen tokian utzi beharko da autobusa, edo, ezin bada edo halakorik ez badago, jardueraren gidariak adierazten duten lekuan. Behin aparkatzeko maniobrak amaitu eta gero, eta motorra itzalita dagoela, taldea jaitsi ahal izango da.

Adierazitako toki horretan beste autobus bat badago aparkatuta, ibilgailua gelditu egingo da, bidaiari guztiak barnean daudela, aurreneko autobusa zentrotik joan arte edo, beste gidariarekin hitz egin eta gero, zehaztu eta erabaki arte bidaiariak segurtasunerako arriskurik gabe jaitz daitezkeela. Bi ibilgailuak geldituta egongo dira bidaiari guztiak eraikinean sartu arte.

**Instalaziotik ateratzeko maniobrarik egin behar ez izateko moduan** utziko da aparkatuta autobusa. Talde osoa autobusaren barnean dagoela edo zentroko instalazioetan sartu denean soil-soilik egingo da edozein maniobra, **inoiz ez aparkalekuan edo inguruetan jendea dagoenean.**

**Ibilgailua instalazioan egongo da bisita osoan,** eta libre edo erabilgarri egongo da, beharrezkoa izanez gero, erabiltzeko, betiere jardueraren gidariarekin kontsulta egin eta gero.

#### 2 Irakasle laguntzaileen ardura, behin instalazioetan daudenean:

**Irakasleek haiekin doan taldearen ardura izango dute bisita osoan,** eta egiaztatu beharko dute taldeak ulertu dituela eta betetzen dituela ematen zaizkion aginduak eta jarraibideak.

**Jardueraren gidarien oharrei jarraitu beharko diete une oro.** Ezin izango dira taldetik banandu eta ziurtatu beharko dute inor ez dela atzean gelditzen, parte-hartzaileen kontrola eramanez.

Arreta berezia jarriko da autobus-gidariarekin alderdi hauek koordinatzean eta kontrolatzean: ateak irekitzea eta **inor ez jaistea ibilgailutik aparkatzeko edo kokatzeko maniobrak amaitu eta motorra itzali arte.**

**Ikasleek jokabide egokia dutela** gainbegiratuko dute, instalazioak zaintzen dituztela eta ez dutela makinarik, tresnarik, etengailurik edo plantako beste edozein elementu ukitzen edo maneiatzen. **Ikasleek substantzia ezezagunak ukitzea** ekidingo dute, arriskutsuak izan baitaitezke.



Mancomunidad  
Comarca de Pamplona  
Iruferriko  
Mankomunitatea

**EZ AHAZTU INGURUNEA ERRESPETATZEA.**  
**Atseginagoa da zainduta dagoen ingurune batean lan egitea.**